

KONTRATAZIO-ESKAINTZA

Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak, nazioarteko lankidetzan lan egiten duten 83 euskal GGKEk osatutako sareak, pertsona bat behar du berehala **Komunikazioko Arduradun** lanpostua betetzeko.

Zeregina

Erakundeko Koordinazio Orokorraren mende egonik, eta gainerako arlo eta lantaldeekin koordinatuta, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen komunikazioa kudeatuko du, erakundearen helburu estrategikoei laguntzeko eta hari buruzko informazioa helarazteko beraren hartzaileren artean.

Funtzioak

- Erakundearen komunikazio-estrategia diseinatzea eta gauzatzea.
- Edukiak, kanpainak, ekimenak eta komunikazio-ekintzak garatzea.
- Erakundeko Koordinazioari, Gobernu Batzordeari, lantaldeei eta Talde Teknikoari laguntza eta aholkularitza ematea komunikazio-alderdiei dagokienez.
- Komunikabideekin eta kazetariekin harreman egonkorrak izatea (datu-baseak eguneratzea, gaiak proposatzea, hedabideen jarraipena egitea, komunikabideekin lankidetzan aritzea...).
- Prentsa-oharrak, -deialdiak eta -dosierak, argitalpenak, komunikatuak, material korporatiboak, artikulatuak, argudio-bilketak prestatzea, etab.
- Webgunea etengabe kudeatzea, mantentzea eta elikatzea.
- Sare sozialak eta beste komunikazio-tresna batzuk kudeatzea eta indartzea.
- Herritarrentzat ulergarriagoa eta irisgarriagoa den lankidetzak diskurtso berri bat eraikitzen laguntzea.
- Erakundearen irudi korporatiboa zaintzea.
- Komunikazioaren arloko proiektuak diseinatzea eta garatzea.
- Erakundea kide den plataforma eta sareetan komunikazio-ekintzetan laguntzea.
- Barne-komunikazioko kanalak, tresnak eta prozedurak diseinatzea eta horietan laguntzea.
- Esleitutako aurrekontuaren exekuzioa eta jarraipena egitea.
- Hitzarmenen eta proiektuen formulazioa, jarraipena eta justifikazioa egitea, komunikazioari dagokionez.
- Erakundearen lanaren kontu-ematerako produktuak eta ekimenak lantzea.
- Aipatutako funtzio horietarako sortuko diren lantaldeak edo lan-espazioei laguntzea eta dinamizatzea.
- Erakundearen jarduerak garatzen laguntzea.

Baldintza profesionalak eta pertsonalak

- Komunikazio Zientzietako lizentziatura edo gradua edukitzea: kazetaritza, ikus-entzunezko komunikazioa edo publizitatea.
- Komunikazio-estrategiak edo -kanpainak aztertzeke, diseinatzeko eta ekoizteko prestakuntza eta ezagutzak edukitzea.
- GGKE-en, lankidetzaren edo hirugarren sektore sozialaren eremuko komunikazio-arloan esperientzia edukitzea.
- Kazetaritzarako eta komunikaziorako trebetasunak edukitzea.
- Euskadiko komunikazioaren eta komunikabideen eremua ezagutzea.
- Euskal GGKE-en, nazioarteko lankidetzaren, giza eskubideen eta gizarte-eraldaketarako komunikazioaren sektorea ezagutzea.
- Erakundearen xede eta helburuekin identifikatzea.
- Euskarako C1 maila edo antzekoa edukitzea.
- Euskaraz eta gaztelaniaz idatziz eta ahoz adierazteko gaitasun handia edukitzea.
- Ingelesa edo beste hizkuntza batzuk jakitea baloratuko da.
- Webgunea kudeatzeko eta edukiak kudeatzeko (Wordpress) ezagutzak edukitzea.
- Web-diseinuko, irudiak tratatzeko eta audioa eta bideoa editatzeko programak erabiltzen jakitea.
- Sare sozialen kudeaketari buruzko ezagutza izatea.
- Taldean lan egiteko eta taldeak kudeatzeko eta dinamizatzeko trebetasunak edukitzea.
- Sormena eta berrikuntzarako gaitasuna edukitzea.
- Genero-gaietan eta feminismoetan ezagutza eta motibazioa edukitzea.
- Mugikortasun geografikoa Euskadi barruan.

Eskaintzen diren baldintzak

- Lanaldi osoko lan-kontratua, urtebeteko eszedentzia bat betetzeko.
- Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko baremoaren arabera soldata.
- Lantokia: Arabako ordezkartzan (Simone de Beauvoir Elkartearen Etxea -San Ignacio Loiolakoa kalea 8, 3. solairua, 1. bulegoa, 01001, Gasteiz-), edo Bizkaiko ordezkartzan (Erronda kalea, z/g. 3., C bulegoa, 48005, Bilbo).

Eskabideak aurkezteko

Interesdunek **2024ko azaroaren 4ra arte baino lehen, barne**, bidali behar dute beren curriculum vitae-a eta aurkezpen-gutuna, erreferentzia hau jarrita:

"Komunikazioko arduraduna", helbide elektronikoa honetara:

coordinadora@ongdeuskadi.org.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko hautatutako izangaiekin bakarrik jarriko gara harremanetan.